

Grimm anaiak, *Grimm anaien berrogeita hamar ume ipuin*.  
Labayru Ikastegia, Sutondoan sorta. Itzultzailea: Ipolito Larrakoetxea.

Azken urteotan, literatur itzulpena gure artean sendotzen doan neurrian, hasi dira agertzen, gutxika bada ere, XX. mendeko lehen hamarkadetan euskaratu ziren zenbait libururen birrargitalpenak. Ekimena oso interesgarria da, ez soilik irakurle hutsaren ikuspuntutik, baina baita itzultzaileentzat eta itzulpen ikasleentzat ere, itzulpena egiteko beste era baten berri ikas dezakegulako horien bitartez. Bada, horien artekoa dugu Labayru ikastegiak duela hiru urte berreskuratu zigun liburu hau. Ipolito Larrakoetxea, Bedita ezagunaren senidea, Grimm anaiek bildu eta moldatutako ipuinak euskaratzen eta Euzko Deya eta Euskal Esnalea aldizkarietan aleka plazaratzen hasi zen 1922tik aurrera, bai eta geroago, 1929an zehazki, bilduma osoa liburu batean bildu ere. Itzulpena alemaneratik egin dago, bizkaieraz, eta Larrakoetxea bere idazteko moduan sabinista bazen ere, honako honetan dexente urrundu zen joera hartatik, ume bizkaitarrek ipuinak ondo ulertzea nahi baitzuen; halere, hitz berririk ere utzi zuen testuan, baina Miren Atutxa itzulpen-moldatzaileak ohar bidez jaso eta batzuetan aldatu ere aldatu ditu gaur egun erabiliko litzatekeen aldaerarekin.

Esan beharra dago liburu honetan nahiko nabarmena dela itzultzailearen eskua: ipuinak bere garaiko irakurleen ustezko mailara “egokitu” zituen, euskaratzaileak berak espreski aitortu zuen bezala. Adibidez, egokitzaileak esanguratsuen izenei dagokiena da, jatorrizko liburuko geografia eta, baita pertsona izenak ere, “euskaldundu” egin baitzituen; horrela, bitxia irudituko zaigu gaur egungo ikuspegitik, baina Bremengo musikariak Larrakoetxearen eskutik pasatu eta gero Durangoko herri-abelariak bihurtzen dira; pertsonaia asko euskal giroko baserrietan bizi dira eta, adibidez, merkatuko salerosketak egitera Bilbora joaten dira, eta Dima, Zeanuri, Eleizondo, Lekanda izen gutarrak azaltzen dira han eta hemen. Pertsonaien izenak ere halakoxeak dira: Jon, Libe, Edurne, Txomin, Kaxinto, Mari Pepa... Beste garai batzuetako itzulpen-ohitura da hau, beste hizkuntza eta herrietan ere ezagutu zena, baina laster utzi zena bertan behera; gaur egun nekez ikusiko da horrelakorik, baina ez da ahaztu behar duela askora ez arte, idazleen beraien izenak ere “itzuli” egiten zirela, eta, hola, Jules Verne Julio Verne zela Penintsulan, adibide bat ipintzearen.

Bestalde, Larrakoetxearen haxe dugu Grimm anaien ipuinen lehendabiziko euskal itzulpena, eta, denbora dexentean, bakarra; izan ere, 80ko hamarkadara arte ez zen berriro azaldu gure artean Grimm anaien ipuinen bertsiorik, eta agertu zirenak solte argitaratutako ipuin banaka batzuk izan ziren, Elkar, Lur eta beste argitaletxe zenbaiten eskutik. Mensajerok eman zuen argitara bigarren itzulpen osoa, 1990ean, Juan Mari Sarasolak euskaratuta; eta 2000. urtean atera zen hirugarren eta, oraingoz, azkena, Pamielarekin Genaro Gomezek egin zuena. Larrakoetxearena lehena izanik ere, ez zuen izan besteetan hainbesteko eraginik; hori, neurri handi batean, normala da, jakina, baina bereziki ipuinetako pertsonaien izenik ezagunenei buruz ari naiz, 1929ko itzulpen hark ez baitzuen markatu espero litekeen tradizioirik; alegia, Larrakoetxearen testuan, ia-ia ezezagunak egiten zaizkigun Txapelgorritxo (Txanogorritxo), Hautsontzi (Errauskine), Edurnetxo (Edurne Zuri), Atxikartxo (Erpurutxo) izenekin egingo dugu topo. Jakin ezinekoa da, noski, geroztiko itzultzaileek izen horietxek adoptatuko zituzten 50-60-70 urte geroago, baina, gure artean ohi den bezala, eta euskaldun herriak tradiziozale fama badu ere, askotan eta askotan tradizio hori edo ez dugu ezagutzen, edo, besterik gabe, albo batera uzten dugu, dena berri-berria egiteko afanagatik.

Bizkaieraz irakurtzera animatzen direnentzat (kontuan izanda, argitalpenaren moldatzaileak bizkaierari ortografia “batua” eman diola), eta gure itzultzaile “klasikoak” eta, beraz, gure tradizioa ezagutu nahi dituztenentzat, irakurgai atsegina.

Koldo Biguri